# EBAZPENA, HERRITARRAK HARTZEKO ETA ZERBITZU DIGITALETAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO ZERBITZU ETA PROZEDUREN KATALOGO KORPORATIBOA ARAUTZEKO AGINDU BAT EGIN AURRETIK, ZUZENBIDE PUBLIKOARI LOTUTAKO PROZEDURETAN

Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak agindu bat egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Zerbitzuen eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa arautzeko, zuzenbide publikoaren mendeko prozeduretan, betiere herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoari buruzko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren aginduari jarraituz.

Proiektu honen xedea da 91/2023 Dekretuaren azken xedapenetako lehenean, 1. apartatuko c) letran, xedatutakoa gauzatzea. Izan ere, azpi apartatu horrek ezartzen duenez, dekretu hori indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean herritarren arretarako eskumena duen organoak agindu bidez zehaztuko ditu Zerbitzuen eta Prozeduren Katalogo Korporatiboaren edukia, egitura eta irismena.

Horregatik, dekretuaren agindu zuzena eta saihestezina betez, agindu hau emango da.

# RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA Y SERVICIOS DIGITALES POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PÚBLICA PREVIA LA ELABORACIÓN DE UNA ORDEN PARA REGULAR EL CATÁLOGO CORPORATIVO DE SERVICIOS Y PROCEDIMIENTOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI EN SUS PROCEDIMIENTOS SUJETOS AL DERECHO PÚBLICO

La Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales siguiendo el mandato del Decreto 91/2023, de 20 de junio, de atención integral y multicanal a la ciudadanía y acceso a los servicios públicos por medios electrónicos va a elaborar una orden por la que se regula el Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sus procedimientos sujetos al derecho público.

El objeto de este proyecto es hacer efectivo, lo dispuesto en la Disposición Final Primera, en su apartado 1 subapartado c), del Decreto 91/2023, que establece, que, en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor del mismo, el órgano competente en atención a la ciudadanía de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, determinará mediante Orden el contenido, estructura y alcance, así como el funcionamiento del Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos.

Es por ello, que, dando cumplimiento al mandato directo e ineludible del decreto, se va a proceder a dictar la presente Orden.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
te. 945 01 85 71 – Fax 945 01 87 01

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T54W5-RNR8
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** MIREN MATXALEN LAUZIRIKA JAUREGI | 2023/11/14 10:08:04

Bestalde, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 133.1 artikuluan xedatzen duenez, erregelamendu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzeko.

Kontsultak alderdi hauek hartu behar ditu kontuan:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

b) Ekimena onartzeko premia eta aukera.

c) Arauaren helburuak.

d) Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Hala ezartzen da, halaber, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean. Zehazki, eta lege honen 11.3 artikuluaren arabera, aurretiko kontsultaren izapidea Agindua izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak bete ahal izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarriz, eta herritarrei berariaz gonbidapena egingo zaie arestian adierazitako alderdiei buruz zabalduko den informazioari buruz iritzia eman ahal izan dezaten.

Halaber, informazio bera Legegunean jarriko da ikusgai, eta gobernu irekiaren plataformara – Irekia – helaraziko da.

Por su parte, el artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas dispone que, con carácter previo a la elaboración de un reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

La consulta se debe referir a los siguientes aspectos:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.

c) Los objetivos de la norma.

d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Así se establece también en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General. Concretamente y de conformidad con el artículo 11.3 de esta Ley, la cumplimentación del trámite de consulta previa podrá realizarla el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la Orden mediante anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, invitando expresamente a la ciudadanía para que pueda pronunciarse acerca de la información que se extenderá sobre los aspectos señalados anteriormente.

Asimismo, la misma información se expondrá en Legegunea y se trasladará a

la plataforma de gobierno abierto –Irekia–.

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12. artikuluak emandako eskumenez baliatuz, honako hau

En virtud de las competencias atribuidas por el artículo 12 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan arautzen duen Agindu baten proiektua prestatu aurretik, kontsulta publikoaren izapidea egitea.

Primero.- Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una Orden por la que se regula el Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sus procedimientos sujetos al derecho público.

Bigarrena.- Aginduaren eraginpean egon daitezkeen herritarrek bai pertsona fisiko eta juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, interes ekonomiko eta sozialak ordezkatzen dituzten elkarte eta erakundeak, eta erakunde publikoak, hala iritziz gero, ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritziak helaraz ditzakete, hogei egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Segundo.- La ciudadanía, bien personas físicas y jurídicas, entidades sin personalidad jurídica, asociaciones y organizaciones representativas de intereses económicos y sociales, e instituciones públicas afectadas por la Orden, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Resolución en el plazo de veinte días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Matxalen Lauzirika Jauregi

HERRITARRAK HARTZEKO ETA ZERBITZU DIGITALETAKO ZUZENDARIA

DIRECTORA DE ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA Y SERVICIOS DIGITALES

(Elektronikoki sinatua / Firmado electrónicamente)

ERANSKINA

1. Arau-ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak administrazio elektronikoaren oinarriak arautzen dituzte, eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez emateko printzipio orokorrak ezartzen dituzte. 39/2015 Legearen 21. artikuluaren arabera, administrazio publikoek web-atarian argitaratu eta eguneratuta eduki behar dituzte, informazio-ondorioetarako, beren eskumeneko prozeduren zerrendak, prozedura horien gehieneko iraupen-epeak eta administrazio-isiltasunak sortzen dituen ondorioak adierazita. Gainera, ezartzen dute herritarrek eskubidea dutela zerbitzu-jardueretara sartzeko eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren prozedura eta izapideei buruzko informazioa bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak hainbat ekimen eta plan bultzatu ditu teknologia berrien erabilera eta informazioaren gizartearen ezarpena lortzeko.

Zehazki, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sortu zen. Zerbitzu elektronikoak eta segurtasun, kalitate eta erantzukizun berme bereziak eskatzen dituen informazioa argitaratzen diren espazio elektronikoa da egoitza. Halaber, dekretu berak egoitza elektronikoaren

ANEXO

1. Problemas que se pretenden solucionar con esta iniciativa normativa.

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, regulan las bases de la Administración Electrónica, estableciendo los principios generales que rigen la prestación de servicios públicos mediante el uso de medios electrónicos. El artículo 21 la Ley 39/2015 determina que las Administraciones Públicas deben publicar y mantener actualizadas en el portal web, a efectos informativos, las relaciones de procedimientos de su competencia, con indicación de los plazos máximos de duración de estos, así como de los efectos que produzca el silencio administrativo. Además, establecen que la ciudadanía tiene derecho a obtener información de los procedimientos y trámites necesarios para acceder a las actividades de servicio y para su ejercicio, a través de medios electrónicos.

La Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi ha impulsado numerosas iniciativas y planes encaminados a lograr la utilización de las nuevas tecnologías y la implantación de la sociedad de la información.

Concretamente y mediante el Decreto 21/2012, de 21 de febrero, de Administración Electrónica se creó la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La sede es el espacio electrónico donde se publican los servicios electrónicos y la información que requiera de especiales garantías de seguridad, calidad y responsabilidad. El mismo decreto estableció, asimismo, como uno de los

edukien artean ezarri zuen egoitzan eskuragarri dauden zerbitzuen katalogoa.

contenidos de la sede electrónica el Catálogo de servicios disponibles en la sede.

Dekretu hori indargabetuta geratu da ekainaren 20ko 91/2023 Dekretua onartzearen ondorioz. Dekretu hori herritarrei arreta osoa eta kanal anitzekoa emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko bideari buruzkoa da, eta Zerbitzuen eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa arautzen du 57. artikuluan.

Este decreto ha quedado derogado como consecuencia de la aprobación del Decreto 91/2023, de 20 de junio, de atención integral y multicanal a la ciudadanía y acceso a los servicios públicos por medios electrónicos, el cual regula el Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos en su artículo 57.

Artikulu bereko eta lege-gorputz bereko seigarren apartatuak aipatzen du herritarrei arreta emateko eskumena duen saileko titularraren agindu bidez zehaztuko direla Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboaren edukia, egitura eta irismena, bai eta haren funtzionamendua ere.

El apartado sexto del mismo artículo y cuerpo legal, cita que mediante Orden de la persona titular del departamento competente en materia de atención a la ciudadanía se determinará el contenido, estructura y alcance, así como el funcionamiento del Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos.

Bestalde, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuaren 9. artikuluak – Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak aldatu zuen dekretu hori – zehazten duenez, administrazio publiko bakoitzak eguneratuta izango ditu administrazio-informazioaren inbentario guztiak, eta administrazio-prozeduren eta modu sailkatuan eta egituratuan emandako zerbitzuen zerrenda jasoko du. Administrazio publikoek elektronikoki konektatuko dituzte beren inbentarioak Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioarekin lankidetzan kudeatutako Administrazio Informazioko Sistemarekin.

Por su parte, el artículo 9 del Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, modificado por el Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos, determina que cada Administración pública mantendrá actualizado el conjunto de sus inventarios de Información Administrativa, que incluirá la relación de los procedimientos administrativos y servicios prestados de forma clasificada y estructurada. Las Administraciones Públicas conectarán electrónicamente sus inventarios con el Sistema de Información Administrativa gestionado por el Ministerio de Política Territorial y Función Pública en colaboración con el Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital.

Administrazio Elektronikoaren esparruko zerbitzu elektronikoen kudeaketaren arloko eskakizun horiei guztiei eta

Para dar una adecuada respuesta a todas estas exigencias en materia de gestión de los servicios electrónicos en el marco de la

91/2023 Dekretuaren aginduari berari erantzun egokia emateko, formalki arautu behar da Zerbitzuen eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zerbitzuei eta prozedurei buruzko informazio guztia egituratzeko. Zerbitzuak eta prozedurak egoitza elektronikoan modu integratuan argitaratzea ahalbidetzeko, administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna errazteko, zerbitzu elektronikoen kudeaketan inplikatutako aplikazio informatikoen arteko komunikazio koordinatua sinplifikatzeko, zerbitzuak digitalizatzeko prozesua bizkortzeko eta egungo lege- eta estrategia-esparruan ezarritako modernizazio-eskakizunei erantzuteko.

Administración Electrónica y al propio mandato del Decreto 91/2023 en sí mismo, se debe regular formalmente un Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos que permita vertebrar, toda la información relativa a los servicios y procedimientos del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Con el fin de posibilitar la publicación integrada de los servicios y procedimientos en la sede electrónica, facilitar la interoperabilidad entre las diferentes administraciones públicas, simplificar la intercomunicación coordinada entre las diferentes aplicaciones informáticas implicadas en la gestión de los servicios electrónicos, acelerar el proceso de digitalización de servicios y responder a las exigencias de modernización dictadas en el marco legislativo y estratégico actual.

2. Ekimena onartzeko premia eta aukera.

2. Necesidad y oportunidad de su aprobación.

Arestian adierazitako araudiak beharrezko egiten du erregelamendu hau eta funtzio hori Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzari dagokio.

La normativa anteriormente indicada hace necesaria la presente reglamentación y esta función le corresponde a la Viceconsejería de Relaciones Institucionales de la Consejería de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco.

91/2023 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak, 1. apartatuko c) letran, ezartzen du ezen, dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean herritarren arretarako eskumena duen organoak, dekretu hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, agindu bidez zehaztuko dituela Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboaren edukia, egitura eta irismena, bai eta haren funtzionamendua ere.

La Disposición Final Primera, en su apartado 1 subapartado c), del Decreto 91/2023, establece, que, de conformidad con lo dispuesto en este Decreto, en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor del mismo, el órgano competente en atención a la ciudadanía de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi determinará mediante Orden el contenido, estructura y alcance, así como el funcionamiento del Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos.

Horregatik, dekretuaren agindu zuzena eta saihestezina betez, Gobernantza

Es por ello, que, dando cumplimiento al mandato directo e ineludible del decreto, la Consejera de Gobernanza Pública y

Publiko eta Autogobernuko sailburuak agindu hau eman behar du.

3. Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboaren funtzionamendua arautzea, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zerbitzu eta prozedura guztien inbentario zentralizatuari dagokion antolamendu-egitura, eredu teknologikoak eta egitura funtzionala ezartzea, Herritarrei Arreta Emateko Sistema Integralaren barruan.

4. Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, beharrezkoa da araudi espezifiko berri bat egitea, eta ez da bestelako konponbide aukerarik ikusten.

Autogobierno se ha de dicta la presente Orden.

3. Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar.

El objeto de esta Orden es regular el funcionamiento del Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, estableciendo la estructura organizativa necesaria, los modelos tecnológicos y la estructura funcional correspondiente al inventario centralizado de todos los servicios y procedimientos del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como parte del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía.

4. Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Dadas las circunstancias expuestas en los apartados precedentes, la elaboración de una nueva normativa específica se presenta como necesaria, sin que puedan apreciarse otras soluciones alternativas.